

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 2724

*AGINDUA, 2021eko apirilaren 19koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baita Auzitegiko Medikuen Kidegoarentzat deitutako lekualdatze-lehiaketa, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko lanpostu generikoak betetzekoa (deialdia 2020ko azaroaren 5eko Aginduaren bidez egin zen).*

Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioak lanera sartzeko, lanpostuak hornitzeko eta lanpostuz igotzeko arautegia onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 51. artikularekin eta hurrengoekin bat etorritik, eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko lanpostu generiko hutsak betetzeko Auzitegiko Medikuen Kidegoarentzat lekualdatze-lehiaketa-rako deialdia egiten duen 2020ko azaroaren 5eko Aginduaren arabera (2020ko abenduaren 17ko EHAA eta 2020ko abenduaren 4ko BOE), honako hau erabakitzen da:

Lekualdatze-lehiaketa ebaztea eta hutsik deklaratzeko 2020ko azaroaren 5eko Aginduaren bidez eskaini zen lanpostua, zeren eta inork ez baitu eskatu.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio, eta, beronen aurka, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen arabera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizko Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Bestela, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 19a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.